

Santi Onaindia

Euskaldunon Egunkaria, 1996-02-27: 3.

Orain hamar urteko gizona dut gogoan. Larreako bere komentu-baratz ederrean ETBrakoa prestatzeko egin nion elkarrizketa luze hartakoa. Aita zenak Santi honaino nondik nora ekarri zuen bidea deskribatu zidan hunkiturik. Gerraurrekoa: Euskalerrriaren alde aro honetan argitaratu zuen eta *Euzko Esnalea*-n idatzi *Baserriko trenak*. Gerra: Eusko Gudarosteko kaperau buru zen Korta eta Saseta frentean hil zituztenean (1937 martxoak 17), joan zen Santi Kirikiño bataloiean frontera; 1937ko ekainak hamasei, Bilbo erortzeko!, Artxandan zegoen; abuztuaren 28tik 1938go martxo arte Duesoko presondegian, Markiegiarekin 13-15 abertzale fusilatu zituzten hartan; gero gerokoak, konzentrazio zelai eta espetxeetan, Carmonan Besteiro-rekin ere. Larreako komentura itzuli zen 1941ean. Norbaitekin *Tratua*, 85 urtetarainokoa egin zuela esaten zuen, eta hala hil da! Bete ditu agindu guztiak: "beti euskal kulturaren lanetan". Liburuak aparte sortu zituen aldizkariak: *Karmel* (1956-1962 zuzendari), *Olerki* (1959), *Aurrera* (1968). Zentsurapean argitaratu zuen euskal kulturaren funtsezko izan den *Mila Euskal Olerki* (1954). Orduan berak egin zidan zerrenda daukat begien aurrean: 31 liburu ziren dagoeneko. Hauen tituluak eta gerokoak –*Otoi-txinpartak* (1988)– hemen gainezka daude.